

2HE: IDATZIA. GUTUNA ETA ARTIKULUA LANTZEN

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Irailak 21,23,28,30 Urriak 5,7	IKASGELA/ TOKIA	30. gela, IVAP Eusko Jaurlaritza Gasteiz
IRAUPENA	15 ordu	ORDUTEGIA	9:00-11:30
MATRIKULA EPEA	Irailaren 4ra arte	ONIRITZI EPEA	Irailaren 11ra arte
IKASLE KOPURUA	15	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Derrigorrezkoa da 1HE gaindituta izatea.
IRAKASLEA		MATERIALA	Ikastaroan banatuko da
DISEINUA	Labayru	AZPIEGITURA	Ordenagailua eta arbela

ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU
OROKORRAK**

2.HEko gutuna eta iritzia emateko testuak sortzen trebatzea.
Testu-mota horien balorazioa egiteko irizpideak ezagutzea.

**HELBURU
ZEHATZAK**

Azterketaren aurkezpena egin.
IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa,
aberastasuna, zuzentasuna.
Eredu onak, idazteko estrategiak eta eskemak landu.
Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin.
Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.
Aberastasanaren gaineko argibide batzuk eman eta ariketak egin.
Zuzentasunari buruzko azalpenak eman: oinarrizkoak diren akats larriak aipatu,
aholkuak eman.

GAITASUNAK

Ikastaroa amaitzen denean ikaslea gai izango da bere lan-esparruko eta hainbat
gai ezagunei buruzko testuak sortzen dituenen, protokolo jakin bati jarraitzeko,
eta bide horretan behar dituen tresnak identifikatu eta erabiltzeko. Gai izango da,
era berean, sortzen ari den testua ebaluatzeko eta, behar izanez gero,
hobetzeko.

2HE: IDATZIA. GUTUNA ETA ARTIKULUA LANTZEN

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

- Arlo praktikoari emango zaio lehentasuna.
- Talde txikietan lan egiten saiatuko gara.

PROGRAMAZIOA

1. saioa:

B2 mailaren deskribapen orokorra egin.

2HEren azterketaren egitura azaldu, eta bereziki idazmen-probaren idatzien nondik norakoak.

Iritzi-artikulu bat idatzi, azken eskola-egunean zuzentzeko.

Galderak egin: nola ibili diren denboraz azterketa egitean, eskemarik egin duten, idazlan luzea egitean eskemaren garrantzia azpimarratu.

2. saioa:

IVAPeko proben balorazio irizpideak: egokitasuna, koherentzia, kohesioa, aberastasuna, zuzentasuna.

Idazteko prozesua azaldu: eredu onak idazteko estrategiak.

Iritzi-artikuluaren zirriborroa nola egin azaldu eta ariketak egin.

Etterako: Gaia eman, eta horren gaineko iritzi-artikulua idazteko zirriborroa egin.

3. saioa:

Ettxean egindako eskema partekatu, komentatu, hobetu, zuzendu... denon artean.

Egokitasunaren azalpena eta ariketak egin.

Koherentzia eta kohesioari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.

4. saioa:

Gutuna: gutuna eta ofizioaren arteko desberdintasunez ohartarazi, gutunen osagaiak eta ezaugarriak azaldu eta ariketen bidez landu: zirriborroa, agurrak, erregistroa, estilo-aholkuak...

Aberastasunari buruzko azalpenak eman eta ariketak egin.

Etterako: Gutun-eredu desegoki bat eman eta zuzendu.

5. saioa:

Ettxean zuzendutako gutuna, guztion artean komentatu edota zuzendu.

Zuzentasunean baloratzen denaren berri eman eta ariketen bidez landu.

Aprobetxamendu-proba.

Etterako: lehen eskola egunean egindako norbere iritzi-artikulua zuzendu.

6. saioa:

Aprobetxamendu-probaren zuzenketa eta hobetzeko proposamenak.

Lehen eskola egunean egindako idazmen-probaren irakaslearen zuzenketa eman, eurek egindakoarekin erkatzeko.

2HE: IDATZIA. GUTUNA ETA ARTIKULUA LANTZEN

Azken gomendioak eta birpasa ariketak.
Balorazioa.

EBALUAKETA

- **Ebaluaketaren helburua:** Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
- **Ebaluaketak jaso beharko du:** Ebaluaketa egiteko saioetan eskatuko diren ariketak eta azken moduluko testua neurtu eta baloratuko dira.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

- Ikasleen gogobetetze inkesta
- Irakaslearen balorazio inkesta

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

Bete beharreko baldintzak:

- %80ko bertaratzea
- Aprobetxamendu proba gainditzea

145 €

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.+